

## **2014-03-24ko OHIKO UDALBATZA**

Irurako Udaletxean, 2014ko martxoaren 24ean, arratsaldeko 6:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

### **-BERTARATUAK:**

Bildu udal-taldekoak: Gorka Murua Macuso, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Tomás Etxeberria Sarasola.

### **-EZ BERTARATUAK:**

Bildu Udal-Taldekoak: Josu Yurrita Loitegui, Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz.

EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, Udaleko idazkaria, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratu baita.

## **LEHENBIZIKO GAIA**

**UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-02-25).**

2014ko otsailaren 25eko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

## **BIGARREN GAIA**

**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2014ko 32 zenbakitik 47 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN S.A. FORU SOZIETATEAREKIN HITZARMENA SINATZEA, HALA BADAGOKIO.**

Itten, Herriarekin Lan Egiten S.A., Gipuzkoako foru-sozietate bat da . Hauek dira dituen helburu batzuk:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta erakunde publikoei aholku ematea.

b) Udalei eta erakunde publikoei laguntzea, inbertsioak eta diru-laguntzak gauzatuaz.

Zentzu horretan, bere lehendakariak udalei bere laguntza tekniko-juridikoa eta administratiboa eskaini die.

Bestalde, udal honek interesa azaldu du eskaini zaion laguntza jasotzeko.

Horrenbestez, aipatutakoa kontuan hartuta, Udalbatzak hau onartu du

## **ERABAKIA**

Lehena.- Udalaren eta Itten S.A.-ren, arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa onartzea.

Bigarrena.- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Irurako Udalaren izenean eta honen ordezkari gisa sina dezan.

Hirugarrena.- Itten Sozietateari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.

## **LAUGARREN GAIA**

### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Irurako Udalaren artean.

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak

direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkartek; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babes eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik beharko. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko.”

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

“1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrek ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin

izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....

d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

.....”

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzaren hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Udalbatzak honako hau

## ERABAKI DU

**LEHENA:** Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.

**Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak honako informazio emango dio Udalari:**

- d-1 eranskina: Diru-laguntzak Zerga betebeharrak betetzea.**
- d-2 eranskina: Kontratazioa :Zerga betebeharrak betetzea.**
- d-3 eranskina: Gizarte Zerbitzuetarako zerga informazioa.**
- d-4 eranskina: Diru bilketaren eremurako zerga informazioa.**
- d-5 eranskina: Babes Ofizialeko etxebizitzaren kudeaketari , sustapenari eta esleipenari begirako zerga informazioa.**

**BIGARRENA:** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Irurako Udalaren izenean eta honen ordezkari gisa sina dezan.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

## **BOSGARREN GAIA**

### **KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAKETAREN AKORDIOA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO**

Udal honetako Udaltzako, 2012ko martxoaren 27an, kontratazio organoari lagunduko dion Kontratazio Mahaia eratzea erabaki zuen.

Ondoren, hizkuntza-irizpideak Baldintza Pleguetan sartzeak aholkatzen du dagokion udal-funtzionarioa bertan egotea, aipatutako gaian Mahaiari lagun diezaion.

Ondorioz, Udaltzako aho batez hau onartu du:

#### **ERABAKIA**

Akordioaren 3. Puntua aldatzea, horrela geratuko delarik:

Por el Pleno de este Ayuntamiento en sesión celebrada el día 27 de marzo de 2012, se acordó aprobar la composición de la Mesa de Contratación, que asiste al correspondiente órgano de contratación.

Posteriormente la inclusión de criterios lingüísticos en los Pliegos de Condiciones aconseja la presencia del correspondiente funcionario municipal para asesorar a la Mesa de Contratación en dicho asunto.

En consecuencia, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

#### **ACUERDO**

Modificar el punto tercero del acuerdo, que quedará de la siguiente forma:

“3.- Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

-Lehendakaria:

Korporaziokoa edo eskuordetutako zinegotzia.

-Bokalak:

- 3 zinegotzi, modu honetan:

-2 zinegotzi Bildu udal talde politikotik.

-1 zinegotzi EAJ/PNV udal taldetik.

-Udaleko funtzionario edo kontratupeko langile bat, kontratazioaren arabera.

-Udal euskara teknikariak, hitza izango du baina botorik ez, Mahaiari aholkatzeko hizkuntza-irizpideak betetzen diren edo ez.

-Idazkaria/kontu-hartzailea.

-Idazkaria:

Idazkaritzako/Kontu-hartzaitzako funtzionarioa edo kontratupeko langilea..”

“3º.-Que la Composición de la Mesa de Contratación, sea la siguiente:

-Presidente: El /la de la Corporación o Concejal en quién delegue.

-Vocales:

- 3 concejales/as de la siguiente forma:

-2 concejales/as por el Grupo Municipal de Bildu

-1 concejal/a por el Grupo Municipal del P.N.V.

-Un funcionario/a o laboral de la Corporación en función de la contratación.

-E/la técnico de euskara, con voz pero sin voto ,para sesorar a la Mesa en cuanto al cumplimiento de los criterios lingüísticos.

-El/la Secretario-Interventora/a.

-Secretario/a: Un/a funcionario/a o laboral de la Secretaría-Intervención.

## SEIGARREN GAIA

### IRURAKO KALEEN IZENEN ZERRENDA ONARTZEA

2012ko otsailaren 28an Irurako Udaleko Udalbatzak udalerriko kale batzuen aldaketak eta kale berrien izenak onartu zituen.

Orain, hauek hizkuntza-zuzentasunaren aldetik aztertu dira eta zerrenda osoa onartu nahi da.

Ondorioz, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

### ERABAKIA

Irurako udalerriko kaleen eta plazaren izenaren zerrenda onartzea, horrela izango direlarik:

1120	GREGORIO AMEZTOY	1etik 3a	
1130	KALE NAGUSIA	1etik 33ra	2tik 50era

Ez da aldatzen

1140	SAN MIGEL PLAZA	1etik 14era		
1150	ZILLAR KALEA	1etik 9ra	2-4	
1180	PELLO ARRESE-IGOR	1	2tik 4ra	
1190	EGUZKIALDE KALEA	1etik 29ra		27-29 berriak
1200	KALE TXIKI	1etik 7ra	2tik 8ra	Ez da aldatzen
6001	LASKIBAR PARKEA	1etik 3ra	2	Ez da aldatzen
6002	KATATEGI BAILARA	1etik 16ra		
6003	LASKIBAR BAILARA	1etik 10era		
6004	IBAI-ONDO BAILARA	1etik 17ra		
6005	AGARRE BAILARA	1etik 5era		5 berria
6006	SHARE KALEA	1etik 7ra	2	7 berria
6007	ETXEZARRETA KALEA	1etik 19ra	2tik 8ra	
6008	SAGASTI KALEA		2tik 6ra	
6009	NEKAZARI KALEA	1etik 31ra	2tik 34ra	32-34 berriak

ALTA BERRIAK	kokapena	Zenb,	
TROSKA KALEA	(Garbileku atzean)	1	2 (lehen K/ Nagusia 29)
PAPER KALEA	(Loatzo plazatik Troska kaleraino)	1	2
BILTEGI KALEA	(Kale Txiki eta Share Kale artean)		
PATXIKU PAGADIZABAL KALEA	(K. Nag. 22-A-B-C)	1etik 5era	
PORTALENEA KALEA	(Anbulategi ondoan)		
ELADIA ALTUNA KALEA	(Eguz.tik Neka. K. doana)		
ERREKALDE KALEA	(Etxebizitzak asten diren kalea)		
LARRITURRI KALEA	Larriturri etxetik Mendi Ondo etxera	1	2tik 10era
GURDI KALEA	(Ang. Agui. atzetik Laskibar hote. adosa.)		2tik 30era
ATXUPI PLAZA	(Irura kafetegiko plaza)	1etik 3ra	

## ZAZPIGARREN GAIA

### 2014. EKITALDIRAKO LOATZO MANKOMUNITATEAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Irurako Udala Loatzo Musika Eskolako kide da eta, 2014ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran onartutako 2014. urteko ekitaldirako udal ekarpenei erreparatuz gero, Irurako Udalari dagokion ekarpena 41.057,38 €-koa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

AKORDIOA

- 1.- 2014 urterako ekarpena onartzea eta ordaintzea.
- 2.- Erabakia interesatuari jakinaraztea.

#### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **2014. EKITALDIRAKO TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-REN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Irurako Udala Tolosaldea Garatzen Elkarteko kide da eta, 2014ko urtarrilaren 13ko batzar orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2014 urterako Irurako Udalari dagokion ekarpena 9.906,94 €-koa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

#### **AKORDIOA**

- 1.- 2014 urterako ekarpena onartzea eta ordaintzea.
- 2.-Erabakia interesatuari jakinaraztea.

#### **BEDERATZIGARREN GAIA**

**GALDE-ERREGUAK.-** Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA